INFORMAZIO OHARRA

Nafarroaren bizikidetza kudeatzeko gakoak

- *Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Gobernuaren Euskarabidearekin izenpetutako hitzarmenaren markoan garatu da "Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza" ikerketa proiektua.*

- *Proiektuak azterketa soziala egin du lurraldearen herritarren eta eragileen artean, bizikidetza bultzatzeko baldintzak ezagutu eta indartzeko.*

Iruñea, 2021eko abenduak 17. Eusko Ikaskuntzak eta Nafarroako Foru Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, 2019an abiatutako markoan kokatzen da Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza egitasmoa. Bi ardatzetan oinarritzen da: Nafarroan ezaugarri den aniztasunean elkarrekin bizitzea eta horren kudeaketa demokratikoa, gutxieneko premisa adostuak bilatuz.

Orain dela bi urte hasi zen lan programa hau, nafar gizarteak lurralde modura aurrera egiteko kontsentsu zabalak nola lortu, eta zein izan zitekeen markorik egokiena identifikazio ideologiko, politiko eta kultural desberdinetako herritarrak elkarlanean aritu ahal izateko, giro abegikorrean eta konfiantza demokratikoan oinarritua. Horretarako, parte hartzeko, eztabaidatzeko eta herritarrei, gizarte eragileei eta espezialistei guneak ireki ziren Herritarren Mahai eta Gizarte Foroen bitartez.

2020an bizikidetzari so egin zitzaion eta Aditu Talde, Nafarroako Eragileen Mahaia eta Nafarroako Herritarren mahaiak osatu ziren. Ondorioen artean aipatzekoak izan ziren, besteak beste, polarizazio handia dagoela Administrazioak euskararen tratamenduari irtenbideak emateko orduan, eta belaunaldi berriek jarrera irekiagoa dutela identitate-arazoaren, hizkuntzaren eta kultura-aniztasunaren aurrean.

2021ean bizikidetzaren oztopoak konpontzeko gakoak aztertu dira, elkarren ondoan bizi beharrean, elkarrekin bizi, nork bere printzipioei eta identitateari uko egin gabe lortzeko. Hortaz, aurreko faseetan lortutako emaitzetatik abiatuta, nafar herritarren arteko bizikidetza lortzeko beharrezkoa den konfiantzaren baldintzetan arakatu da eta, argi izanda euskararen kudeaketa dela nafar gizartean sarrien agertzen den gai gatazkatsuena, haren kudeaketaz -administrazioaren aldetik-, diskurtsoez -eragile sozial eta politikoen aldetik- eta jarrerez -herritarren aldetik- aholkuak adieraztea bilatu da 2021ean.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

Lanari ekiteko, batetik, izaera anitzeko nafar lurralde osoko kideez osatutako Aholku Batzorde bat osatu da eragile desberdinen artean konfiantza giroa sendotzeko iradokizunak eta aholkuak adierazteko. Bere ekarpenak, nafar herritarren arteko bizikidetzaren oztopo errealak identifikatzea izan da, euskara eta nazio identitateen inguruan (hizkuntza politiken diseinuan sartu gabe); konfiantza giroa lantzeko baldintzei eta neurriei buruz gogoeta egitea; eta hausnarketa orokorra egitea nafar gizartean kontsentsuak lantzeko ezinbesteko liratekeen agertokien inguruan. Bestetik, lurralde osoko hamahiru ordezkari edo gogaide politiko elkarrizketatu dira, Nafarroako aukera ideologiko guztiak jaso nahian.

Halaber, ekainaren 16an Iruñean eta online formatuan, "Gure desadostasunak: desberdinen artean konfiantza lantzen Nafarroan" gogoetarako jardunaldiak antolatu ziren. Gizartearen zein erakundeen aldetik, bizikidetzako distortsioak demokratikoki nola bideratu litezkeen aztertu zuten. Bertan, mahai bi osatu ziren: nazioarteko mahaia, Nafarroako kanpoko gogoetak eta esperientziak ezagutzeko; eta Nafarroako Mahaia, bertako adituz osatua, bertatik bertara dagoen problematikari buruz aritzeko.

Bestalde, Nafarroako Euskaltzale Topaguneak urriaren 14ean antolatutako *Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak* jardunaldietan proiektuaren arduradunek ponentzia bat aurkeztu zuten euskararen gaian proiektuak landutako arlo nagusiak azaltzeko.

Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Gobernutik, Euskarabidearen bidez, gauzatutako proiektu honetarako 55.000 euroko laguntza jaso du 2021ean bere hirugarren fasea gauzatzeko. Gainera, bat egiten du Nafarroako Gobernuaren Bizikidetza, Bakea eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bultzatutako *Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoarekin.*

2021ean gauzatutako lanaren emaitza da aurkeztu berri den Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza (2021) txostena, Eusko Ikaskuntzaren www.eusko-ikaskuntza.eus web orrialdean ikusgai dagoena.

NOTA INFORMATIVA

Claves para gestionar la convivencia en Navarra

- *El proyecto de investigación "gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia" se ha desarrollado en el marco del convenio suscrito entre Eusko Ikaskuntza y el Gobierno de Navarra por medio de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera*

- *El Proyecto ha realizado un análisis social entre la ciudadanía y agentes del territorio para conocer y reforzar las condiciones que favorecen la convivencia.*

Pamplona, 17 de diciembre de 2021. El proyecto Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia se sitúa en el marco iniciado en 2019 por Eusko Ikaskuntza y el Gobierno Foral de Navarra, a través de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Se basa en dos ejes: convivir en la pluralidad que caracteriza Navarra y su gestión democrática, buscando unas premisas mínimas consensuadas.

Este programa de trabajo comenzó hace dos años con el objetivo de lograr consensos amplios para el avance de la sociedad navarra como territorio, y ahondar en el marco idóneo para que ciudadanos y ciudadanas de diferentes identificaciones ideológicas, políticas y culturales pudieran colaborar en un clima acogedor y de confianza democrática. Para ello, se abrieron espacios de participación y debate a ciudadanía, agentes sociales y especialistas a través de las Mesas Ciudadanas y Foros Sociales.

En 2020 se puso el foco en la convivencia y se constituyeron el Grupo de Expertos y Expertas, la Mesa de Agentes y las Mesas Ciudadanas de Navarra. Entre sus conclusiones destacaron, entre otras, la existencia de una fuerte polarización a la hora de dar soluciones al tratamiento del euskera por parte de la Administración y la actitud más abierta de las nuevas generaciones ante el problema identitario, lingüístico y multicultural.

Este 2021 se han analizado las claves para resolver los obstáculos de la convivencia, en lugar de simplemente vivir en conjunto, convivir, pero sin tener que renunciar por ello a los propios principios e identidad. Así, a partir de los resultados obtenidos en fases anteriores, se ha indagado en las condiciones de confianza necesarias para lograr la convivencia entre la ciudadanía navarra y, teniendo claro que la gestión del euskera es el tema más conflictivo que aparece con más frecuencia en la

sociedad navarra, se ha buscado en 2021 asesorar sobre su gestión -por parte de la administración-, sus discursos -por parte de los agentes sociales y políticos- y sus actitudes -por parte de la ciudadana-.

Para abordar el trabajo, por un lado, se ha constituido un Consejo Asesor compuesto por integrantes de todo el territorio navarro de carácter diverso para expresar sugerencias y consejos que ayuden a consolidar un clima de confianza entre los diferentes agentes. Sus aportaciones han consistido en identificar los obstáculos reales a la convivencia entre la ciudadanía navarra en torno al euskera y las identidades nacionales (sin entrar en el diseño de políticas lingüísticas); reflexionar sobre las condiciones y medidas para trabajar un clima de confianza; y realizar una reflexión general sobre los escenarios imprescindibles para trabajar los consensos en la sociedad navarra. Por otro lado, se ha entrevistado a trece representantes o simpatizantes políticos de todo el territorio, tratando así de recoger todas las opciones ideológicas de Navarra.

Asimismo, el 16 de junio se organizaron en Pamplona y en formato online unas jornadas de reflexión denominadas Nuestros desacuerdos: generando confianza entre diferentes en Navarra. Tanto por parte de la sociedad como de las instituciones, analizaron cómo se podrían reconducir democráticamente las distorsiones en la convivencia. Allí se constituyeron dos mesas: una internacional para conocer las reflexiones y experiencias fuera de Navarra; y la Mesa de Navarra, formada por expertos y expertas locales, para tratar sobre la problemática que existe sobre el terreno.

Por otra parte, el pasado 14 de octubre, en las jornadas sobre Oportunidades para reforzar las actitudes a favor del euskera en Navarra, organizadas por Euskaltzaleen Topagunea, las personas responsables del proyecto presentaron una ponencia en la que explicaron las principales áreas trabajadas por el mismo en el área del euskera.

Eusko Ikaskuntza ha contado con una ayuda de 55.000 euros del Gobierno de Navarra, a través de Euskarabidea, para llevar a cabo su tercera fase este 2021. Asimismo, cabe destacar que el proyecto se suma al I Plan Estratégico de Convivencia impulsado por la Dirección de Convivencia, Paz y Derechos Humanos del Gobierno de Navarra.

Fruto del trabajo realizado en 2021 es el informe Gestión democrática de la diversidad en Navarra: convivencia (2021), que se encuentra abierto a la consulta en la página web de Eusko Ikaskuntza www.eusko-ikaskuntza.eus.